

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Hiri-hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik 2026an ordaindu beharreko tasen erroldak jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita hiri-hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik 2026an ordaindu beharreko tasen errolda, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea—, hura aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak aurkezteko.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa horiek ordaintzeko epea 2026ko apirilaren 22tik ekainaren 30era artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko otsailaren 12an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO